



Sagarrondoa, kupela eta botila; hastear da ziklo berria

Denboraldia geroz eta malguagoa den arren, hilabete barru zabalduko da eskualdean sagardotegien denboraldi berria / 11

Euskaraldia igaro osteko hausnarketa

Eskarmentu handiko euskaltzaleak dira Tapia eta Argiñarena. Azken hilabeteotan Urnietako Euskaraldia batzordeak egin duen lan onaren erantzuleetakoak dira / 2-3



**Kultur ekitaldiz
beteriko asteburua
Andoainen
eta Urnietan,
Eguberrien atarian** / 8-9

**Pentsio duinen aldeko
Andoaingo bilkuran
Donostiako
manifestaziora joateko
deia luzatu zuten** / 16

**Abenduaren 24an
kantari irtengo den
taldeak bi entsegu
gingo ditu Lekaion,
datorren astean** / 10



**Aspanogiren alde
elkartasunezko
musika emanaldi
hunkigarria
Basteron** / 7

Ernaitza

liburudenda

Gurean topatuko dituzu:

- Durangon aurkezten diren nobedadeak.
- Kultura bonoaren onurak.
- Joku, jolas eta opari gaiak.

**Eguberrikako
eskaintza
bikaina**

Zumea, 9. Andoain. 943 592 459
ernaitza@yahoo.com



Joxe Fermin Argiñarena eta Koldo Tapiak Euskaraldian murgilduta ibili dira. AIURRI

Alarma gorria itzaltzeko garaiz

72 urte ditu Koldo Tapiak. 65 Joxe Fermin Argiñarenak. Izatezko bikote baten pare ibili dira azken hilabeteetan Urnietan barrena, Euskaraldia ekimenean laguntzen beste 6-8 kiderekin batera

Andoni Urbistondo URNIETA

Adinak ematen dien patxada eta jakinduria baliatuz, euskarak Urnietan bizi duen egoeraren diagnosa egiteko eskatu die Aiurri aldizkariak; Euskaraldia eraginkorra izan den edo ez; euskararen jakintza osasuntsu dagoela diote, baino erabilera gaixo. Erremedioa ba omen du, oraingo.

Ebaki bat eta ordubeteko solasaldia. Hitz errazekoak dira Koldo Tapiak eta Joxe Fermin Argiñarena. Galdetu gabe ekin diote hitz aspertuari. Tapiak ekin dio: “Euskara eguneroko zentralitatetik kanpo geratu da nire ustez. Hogei lagunek koadrilan kanpotar bat egon eta berehala jabetuko gara zer gertatzen den. Euskaldunok axolagabetu egin gara, pentsatuz hezkuntzatik datorren normaltze prozesua normaltze orokorra dela”.

Egungo gazteei euskarari buruz halako interesa, arduraren bat ba ote duen galdetu eta ezetz esango dizu: “Nik euskara hitz egiten dut-eta!”, botako dizute”. Euskararen egungo dinamika lubaki batean sartu dela dio Tapiak, non jakintza hazten eta hobetzen doan, “euskara aberatsagoa den –tesi piloa, Berria egunkaria...–, baina erabileran apaldu egin da”. Zergatia? Ez omen dago bakar, poliedrikoa baizik.

“Faktore makroa, globalizazio ekonomiko eta politikoak linguistikoa ere ekarri duela. In-

“EUSKARAK EZ DU ERREZELORIK SORTZEN HERRITARRENGAN, BATU EGITEN DITU”

gelesa ez baldin badakizu, ez zara inor, ezin duzu ezer egin edo lortu. Ingelesak prestigioa dauka, segapoto bat erabiltzeko ekintza xumea. Beste faktore bat, euskaldunok diktadura ostean euskararen etorkizunari buruz genuen iritzi ezkorra. Hark jarrera militantea ekarri zuen euskara zultotik ateratzeko. Orduko hartan ikaragarritzko ahalegina egin zen egoera iraultzeko: Ikastolen Elkarte, AEK... Belaunaldi batetik besterako transmisioa eman zen, baina oraingoak, transmisioa egingo al dio hurrengo belaunaldiari? Ikastolan ari den gazteak ez omen du behar hori sentitzen, ez du euskara arriskuan ikusten”.

Hausnarketa denona omen, ez gazteena bakarrik, Argiñarenaren ustez. “Euskara ez bada erabiltzen, nahiz eta jakin, galdu egingo da. Euskararen egu-

neko, abenduaren 3ko argazki mingarri bat ekarriko dut solasaldira, egoera ulertzen laguntzeko. San Juan plazan, 12-15 gazte, eta irakasleak, eguerdian. Ia denak gaztelaniaz, tartean irakasleak. Hori da egungo egoera. Niri lotsa eman zidan argazki horrek, zeren eta Egape ikastola eraiki zenean hainbatek gure etxeak abalatu genituen proiektuak aurrera egin zezan. Ahalegin hark 50 urte geroago emaitza hori duela ikustea oso mingarria egiten zaigu. Auzolanak eraiki zuen herri hau, eta auzolana bukatu zenetik gainbehera ikaragarria izan da”.

Erantzun jakineko galdera da, zergatik erabaki zuten Euskaraldia sustatzeko taldean laguntzea. Baina honatx, argitze aldera, erantzuna: “Euskalduna naizelako. Egin behar zelako. Batek tira, besteak bultza, ba zerbait lor genezake. Nire burua behartuta ikusi nuen ekimenean laguntzera”, Argiñarenak. Tapiak ondoren: “Gurea bezalako herri txiki batek aurrera egin nahi badu euskararen kontuan, ezin bestekoa du gizarte zibilak oso dinamikoa eta antolatua izatea. Azken urteetan erakundeen esku utzi dugu erantzukizun guztia, edo gehiena, eta orain hasi gara ardura uzte horren ondorio txarrak nozitzen. Nik neuk ere pausoak emateko beharra sentitzen nuelako eman dut. 7 urte eman ditut leihotik begira –zazpi urte atzera etorri zen Urnietara bizitzera–, eta jauzia eman badut, emateko beharra ikusi dudalako izan da. Erabileraren eremu publikoa galdu da, eta horregatik eman dut pausoa”.

Alarma gorriak piztuta

Uztailean Udaleko euskara zerbitzuaren deia jaso zuten biek. Aurrez aurreko bilera bat egin, eta ez omen zen jende askorik animatu. “Bigarrena akuiluarekin jende baten atzetik ibilita osatu zen, jendetsuagoa”, dio Tapiak. “Lehen inpresioa, nire buruari taldea zahar etxeko ordezkariak osatzen ote zuten galdetzea izan zen. Baina boron-

datea bazen, eta geundenok pausoak ematea erabaki genuen”. Argiñarena egoera larria zela jabetuta zegoen ordurako: “Euskaraldia hasterako alarma gorriak piztuta zeuden herrian. Gure artean komentatzen genuen, euskara gero eta gutxiago, eta gaztelania gero eta gehiago entzuten dela. Alarma gorriak piztuta ikusi ditugunean, ‘zerbait egin beharko dugu’, pentsatu dugu, bestela hondamendia baitator. 50 urte pasa eta gero egoera lazgarri hau ikusteak pentsarazten dizu zerbait gaizki egin dugula, gure seme-alabek ikastolan euskara ikasi eta kalean hitz egiten ez bada. Zertarako trajea erosi, armairuan uzten baduzu?”.

Hamaikakoak lotzerakoan-eta, tiraka aritu behar izan zuten, berau osatzeko, “egokiena protagonistek euren kabuz baiezkoko ematea bazen ere”. Argiñarenak zer pentsatua ematen duen ondorioa atera zuen jardun horretatik: “Irakaskuntzako jendearekin oso kritiko naiz, ez baitzen arrimatu ere egin hamaikakoaren kontuan”. Bertsolari ohia mingaina astintzen hasi da, eta gogor kritikatu ditu euskarazko komunikabide batzuk: “Euskarazko komunikabideetan Espainia osoko edukiak eta gaztelania usu erabiltzen dituzte, eta niretzat hori ulertezina da... Lehenengo astean entzun nion, Maite Artola esatariari, Iñigo Urkullu Lehendakariak Bilbon hitzaldi bat eman zuela bi orduz, eta esaldi bakarra egin zuela euskaraz esanez”.

Diagnosa egina, konponbiderik ba al da? Tapiak baiezkotan: “Ez nintzateke erabat katastrofista izango. Frankismoan gure gurasoek zera esaten ziguten: ‘ikasi ezak *castellano* munduan barrena ibiltzeko. Ez hadi beldurarekin bizi Donostiara joateko’. Euskarari tinko eusteko ere esaten ziguten, baina gaztelaniarena kementsuago. Horrek euskararen gainbehera ikaragarria ekarri zuen. Oraingo egoera hobe da, nire ustez. Garaiz gaude, badauzkagulako osagaiak, egoera hobetzeko. Euskara dakien gazteria dago, egitura egokia ere bai, transmisioa eman dadin, baina osagaiak falta zaizkigu, prozesua legamiatu dadin”. Metafora ezin egokiagoa erabili du: “Masa daukagu, baina ezin ogia egin”.

“GAURKO GIZARTEAN BIZI-IRAUPENA, LANA EDO ETXEA DIRA LEHENTASUNAK, EZ EUSKARA”



“Balantzea ona da, ez baitzen erraza egun batetik bestera sortu den taldeak halako emaitzak lortzea”. AIURRI

1.000 ahobizi, 300 belarriprest

Patxadaz, duela bi aste, abenduak 5 zituela egin zuen taldeak Euskaraldiako balantzea. “Balantze ona, ez baitzen erraza egun batetik bestera sortu den taldeak halako emaitzak lortzea”. Emaitzak onak izan baitira. 1.000 ahobizik eman zuten izena, eta 300 belarriprest-ek. “Portzentualki oso kopuru ona da”, dio Tapiak. “Taldeak sorpresa hartu du. Mahai gainean helburuak jarri genituenean, zenbakietan, ez ginen gai izan zenbaki zehatz bat botatzeko. Herritarren erantzuna oso positiboa izan da. Mahaiak jartzean, aktiboak izan behar genuen, jendeari pegatina edo txapa jartzeko. Lata eman. Ba gu joan beharrean, jendea etorri egiten zen mahaira, gure sorpresarako. 200 bat parte-hartzaile batu genituen mahaia jarri genuen egun batean, eta gure helburua ze kopuru zen galdetu zuen norbaitek. Nik 1.000 bota nituen, zenbaki bat esate aldera, eta denok barrezka hasi ginen. Bueno, 600, adostu genuen. Eta kopurua biderkatu dugu. 1.300 izen-emate dira, pasiboak, eta aktibo izaten lagundu behar ditugunak. Baina pasibo badi-tugu behintzat. Borondatea badago, behintzat”.

“Euskarak liskar kontrajarri-rik ez eragitea sekulako aurre-rapausoa da, zeren eta herri honetan gai guztietan gara bi, beti daude bi ikuspuntu. Eta herriak sumatu egin du euskararen aferan ez garela bi, bat

baizik. Hori herritarrek sumatu egin dute, jaso, eta bultzada handia eman”. Urnietako jendartea ezagutzen dute Tapiak eta Argiñarenak. Gure Esku Dago ekimeneko kide ere izan ziren. “Sumatu dugu Gure Esku Dago ekimenean herritarrek Euskaraldian baino askoz errezelo gehiago eduki zutela. Euskaraldiak askoz ere harrera adeitsuagoa izan du herritarren artean. Euskaraldian ez da kontrajarritako debate politikorik izan. Gure Esku Dago ekimenean, aldiz, bai. Gure Esku Dago-k sortzen du errezelo hori. Egitura politikotik gatazka existitzen da, euskararen aferan ez”.

Inork ez omen du zalantzan jarri euskara sustatu, lagundu behar dela. Argiñarenak xehetasun hau eman du: “Euskaraldirako jendea batzen hasi ginenean, baiezkokoak jaso genituen, baina izan ziren esan zigutenak ‘ados, baina nik ez diat politikan sartu nahi’”. Eta bere buruari galdetzen dio, “non hasten da politika, non bukatu? Zer da politika, zer ez?”

"EUSKARAK LISKAR KONTRAJARRIRIK EZ ERAGITEA SEKULAKO AURRERAPAUSSOA DA"



Euskararen defentsan ego- tea politikan sartzea bada... Badirudi euskararen kontua egitura politikotik harago da- goela, sentsibiltate anitz biltzen dituela”.

Hori esanda, Tapiak argi du “euskararen erabilera, etorki- zuna eta eremu politikoa esku hartuta doazela. Euskara hautu pertsonala da, bai, baina hiz- kuntza gutxitu garen neu- rrian kolektibo gisa iraun nahi badugu, politikoki lotu beharko gara. Bo- rondate soilen metaketa ez da eraginkorra izango.

Herri elebidun edo hiru eledun izango gara, baina eremu politikoa aintzat hartuta”.

Etorkizuna

Euskaraldia-k mesede egin al dio euskarari? Baiezkokoan biak, nahiz eta oraindik goiz den ondorio ziurrik egiteko. Ekitaldi batzue- tako argazki polita na- barmentzen dute”. Aza- roaren 18koa, adibidez, non plazan egin zuten ekitaldian jende dezente eta anitza berta- ratu ginen, 100 bat lagun. Bes- telakoan, ‘buenos dias’ esaten zuen norbaitek, orain ‘egun on’ esaten duela”. “Barrika behar bezala bete dugu, edo gero alfe- rrik husten utziko dugu? Ikusi- ko da. Euskaraldia izan daiteke inflexio puntu bat”, Tapiaren ahotan. “Erakunde eta herri mugimenduek orain arte izan

Herrigintzarako garai zailak

Herrigintzan ibilbide luzea dute Argiñarenak eta Tapiak, eta garai zailak bizi direla onartzen dute: “Herrigintzaren zumeak diktadura garaikoak dira. Norberak bere kasa askatasun osoz aukerarik izan ez duenean, jendartea gotortu egiten da. Diktaduran jendaurrean Gora Euskadi esatearen pareko zer esan genezake egun? Orduan gizartea lotua zegoen, eta gaur ezpalduta. Egundak komunean lotuko gaituen zerbait topatzea zaila da”. Kapitalismoak ekarri duen neoliberalismoak ere bere lana egin omen du: “Krisi garaia ikusita, logikoa ikusten dut gazteek gai sozio-politikoekiko ardurarik ez izatea. Euren kezka etxebizitza, lana dira. Bizi- iraupeneko gorpilean sartu gaituzte. Herrigintza, nire kezka da zer esan diezaiokgun 70 urteko bi aitonek, 20 urteko gazteei, bizitza perspektiba erabat ezberdina dugunean. Euskarari buruz, akaso, baina gazte horrek agian Brasilen bilatu beharko du bere etorkizuna, eta euskara ez da garrantzitsua izango bere bizitzan. Herrigintzarik gabe etorkizuna oso kamutsa izango da, baina ze herrigintza eredu sustatu behar dugu? 70-80. hamarkadako herrigintzak bere egitura eta eraginean atzerakada latza izan du, orduan zeudenak herrigintzan gaur egun irauten baitute. Kontsumo gizartearen esanetara bizi gara, eta horrek asko baldintzatzen du gure egunerokoa”. Argiñarenari atentzioa ematen dio herri ekimenek jendea elkartzeko dituzten zailtasunak, eta aldiz, “futbol zelai batean neguko astelehen hotz batean zenbat milaka gazte elkartzen diren”.

Espainiako Konstituzioak 40 urte

Bi solaskideek esperantzarik ba al dute, gure aberriak bere etorkizuna erabakitzeko aukeraren inguruan? Tapiaren hausnarketa: “Gure aiton zaharrak sarri esaten zuen ‘todo queda atado y bien atado’. Ezaguna egingo zaio irakurlari. Trantsizio garaian ezkerreko alderdiek ez zuten hausturarik gauzatze- ko ausardiarik izan, eta orain, Kataluniako kontuak soziologia frankista esnarazi du. Eta etorriko dena... Oso urrun ikusten dut herrialde demokratiko bat, eztabaida serio bat baldintza demokratikoetan ematea. Eta Euskal Herriko independentzia edo erabakitzeko eskubidea, zer esanik ez... 40 urtetan Konstituzioa ez da zipitzik ere aldatu, gizartearen bilakaerara moldatzeko duten interes ezaren adierazle. Biolentzia matxistaren epaietan agerikoa da inmovilismo hori. Egitura formal demokratikoak ditugu, baina praktika demokratikorik ez. Ukazio jarrai baten menpe bizi gara. Hortik jendarte baten borondatea errespetatzeko egoera batera pasatzeko, jauzi ikaragarria dago. Gure egitura kultural, historiko eta linguistikoa defendatzeko baliabiderik ez baldin badugu, mugi gaitzezen, gu nonbaitetik salbatzera etorri zain egon gabe”. Errespetua du ahotan Argiñarenak: “Espainiar sentimendua dutenak errespetatzen ditut, baina nik ere eskubidea dut euskalduna izateko. Ezin dut errudun sentitu euskaldun sentitzen naizelako, baina ez didate uzten. Espainiarra ez banaiz, ezin naiz euskalduna izan, eta hori oso tristea iruditzen zait”.

duten enfrentamenduak beste norabide bat har dezake, biak norabide berean jarri, eta ba- koitzak bere tokitik lana egin”. Nondik jo behar da orain? “Guk urtarilaren 23rako beste bilera bat deitu dugu taldean, sua bi- zirik mantentzeko. Ze eten bat ematen bada, akabo. Ez naiz, dena den, jendea aspertzaren

aldeko. Ez da herritarra nekatu behar. Eutsi egin behar zaio, baina neurritz”. Koldo Tapiarena, hausnarketa. Eta beste metafora interesgarri bat, Argiñarenaren eskutik: “Otordu fuerte bat ondo etortzen da noizean behin, baina egunero txuleta jan baino, noizean behin komenigarria da porru patatak dastatzea”.

POSTONTZIA



Andoaingo Euskaraldiaren eskertza

ANDOAINGO EUSKARALDIA BATZORDEA

Hilabete batzuk lehenago jomuga jarrita geneukan azaroaren 23a iritsi eta euskaraz hitz egiteko edota euskaraz ulertzen dugula esateko garaia iritsi da. Eta iritsi ez ezik, iritsi ordurako 11 egunak azkar pasa zaizkigu. Gauzak horrela, txapa jantzita jarraitzea erabaki dugun/ten asko ikusten da oraindik

kalean. Berokia aldatzean txapa berriz janztea zenbaite-tan ahaztu bazaigu ere, hainbeste herritar txapa jantzi-ta ikustea zoragarria izan da. Txapadunon arteko konplizita-tea eta irribarreak euskaraz gehiagotan eta gehiagorekin aritzeko aukerak eskaini dizkigu. Gure euskararen unibertso txikia handitu egin zaigu, euskaldunoi nahiz

euskara bidelagun nahi dugunoi. Lehen urratsa emana dago, eta orain, 12. egunetik aurrera, Euskaraldian hartuta-ko konpromiso honi jarraipe-na ematea dagokigu. Beraz, animo eta eutsi euskarari! Ariketa sozial erraldoi hone-tan bidelagun asko izan ditugu: komunikabideak, instituzio publiko eta pribatuak, merkatariak, ikaste-

txeak, elkarte gastronomikoak, Udala, kirol, kultur eta bestelako taldeak, baina azken finean, norbanakoaren hautua izan da guri euskaraz egiteko eskaintza edo euskara ulertzen duten guztiek euskaraz egingo diegula adieraztea; beraz, gure ZORIONAK Andoainen ariketa egitera animatu zareten 2554 herritarrei. Andoaingo Euskaraldia Batzordean oso

pozik gaude herritarrek erakutsi duzuen konpromisoa-ekin. Izena eman, 11 egune-tan txapa jantzi, konpromisoa bete, eta herrian egin ditugun ekimenetan eskaini diguzuen babesa eta parte hartzeagatik jaso ezazue gure eskerrona. Euskaraldiak jarraipena izango du, eta ziur gaude, Andoainek ere babesa emango diola berriz ere euskarari.

ERREDAKZIO MAHAIA

Memoria partekatu baterantz

Aiurri inprentan zegoela, abenduaren 12an “Memoria Partekatu baterantz” txostenaren aurkezpen ekitaldia egiten ari ziren Basteronn. Andoaingo Udalaren bizikidetzak mahaiaren ekimenez, Argituz elkarteak Andoainen 1956tik 2018ra bitarte izan diren giza-eskubideen urraketei eta indarkeria-ekintzei buruzko txostena landu du. Horren emaitza da Basteron aurkeztu zutena. Udalak bidalitako oharren arabera, txostenaren argitalpena bizikidetzaren aldeko urratsa da: “Txosten honekin aurrerapauso garrantzitsua eman dugula uste dugu. Gertatutako guztia aitortzeko, zein memoria kolektibo bateratzaile eta partekatuen bidean aurrera egiteko tresna baliagarria izango dela irizten diogu. Gertatutakoa modu kritiko eta autokritikoan aztertzeko, argitu gabeko gertaerak argitzeko, eta egin gabeko errekonozimenduak eta erreparazioak egiteko. Gure memoria lantzen eta bertan sakontzen jarraitzeko gero-ko belaunaldiak jazotakoa ezagutu eta gure hutsegiteetatik ikas dezaten”.

Giza eskubideen urraketak jasotzeaz gain, txostenean 29 pertsonen (16 emakumezko eta 13 gizonezko) iritzia eta testigantza eman dute: “Elkarriketatu diren pertsonen artean aniztasun handia dago: biktimak eta biktimen familiartekoak,

udal-ordezkariek eta gizarte mailako pertsonak...”.

Hauexek dira, orden alfabetikoan: Agustin Alberro, Antonio Amondarain, Estanis Amutxastegi, Nerea Amutxastegi, Mari Karmen, Imanol eta Ixidro Ansa, Luisa Cueli, Mikel Arregi, Mari Paz Artolazabal, Joxean Barandiaran, Manuel Correas, Elias Diaz, Pedro Elustondo, Mila Garralda, Asun Guerra, Bakartxo Iguaran, Patxi Irigoras, Maider Lainez, Xabier Lekuona, Ixiar Lizarralde, Miren Mujika, Zuriñe Olaitz, Karnele Otaegi, Maite Pagazaurtundua, Ines Rodriguez, Petri Romero, Jose Luis Vela eta Ainhoa Zabala.

29 horiez gain, Argituzek beste 21 pertsonen ekarpena ere jaso du, azken urteetako historiaren argazki ahalik eta osatuena egiteko. Hauexek: Ramon Ansa, Xabier Arberas, Antonio Arin, Haizea Baltasar, Ana Carrere, Jorge Mourinho, Daniel De La Calle, Xabier Garcia, Juan Miguel Goiburu, Olga Hernandez, Chema Herzog, Ildefonso Iriarte, Mari Jose Izagirre, Xabier Lasa, Joxe Mari Olazabal, Iñaki Otamendi, Mikel Salvador, Marta Trutxuelo, Ramon Urrutia, Blanca Villafañe eta Jon Zulueta.

Txostenaren egileak aritu ziren aurkezpen lanetan: Jokin Esnaola, Aintzane Gamiz, Sabino Ormazabal eta Maitena Salinas; eta Jon Mirena Landa Zuzenbide Penaleko Katedraduna.

POSTONTZIA

Gora Euskal errepublika!

INDEPENDENTISTAK SAREA

Espainiar Konstituzioaren 40. urteurrena betetzen den honetan, zera diogu argi eta garbi: Espainiako konstituzioak ez du aitortzen Euskal Herririk. Ez du herri eta nazioen aitortzarik onartzen eta, are gutxiago, nazioen eskubiderik. Bere ADNan ez dago demokrazia eta justizia sozialaren arrastorik, espainiar inperio genozida zaharraren eta frankismoaren arrastoak dira nagusi. Lau hamarkadetak diktadura frankistaren ondoren jasan dugun beste 40 urteko erregimen neofrankistaren oinarri juridiko/politikoa da Konstituzioa. Trantsizioaren iruzurraren kontestuan, diktadurarekin hautsi orde, demokrazia bahitzeko tresna

bilakatu zen. Bere testua guztiz ukatzailea da berez eta, horrez gain, Estatuaren aldetik testuaren irakurketa guztiz maltzurra egiten da edozein aldarrikapen politiko edo disidentzia erasotu eta desegiteko.

Kataluniako burujabetza prozesuak 78ko erregimena kinka larrian jarri duenean, argi ikusi da nola erreakzionatu duen ultra nazionalismo espainiarrak bere aurpegirik bortitzenarekin. Aldi berean, inboluzio politikoaren erdian 78ko erregimenaren estalpean iraun eta berrantolatu den eskuin faxista indartsu agertu izanaren jatorria, frankismoaren inpunitatea bermatu eta demokrazia bahitu zuen trantsizioaren iruzurrean eta Konstituzioan

bertan dago. Ezinezkoa da espainiar Estatu demokratizatzea eta bere egituren barruan Euskal Herriak ez du inolako burujabetza aukerarik, eta gure etorkizun politiko, ekonomiko, sozial eta kulturala erabat hipotekaturik dago. Menpekotasunetik askatasunera jauzi egiteko garaia da.

Euskal Estatu demokratiko eta soziala eratu eta Euskal Errepublika aldarrikatzeko garaia da.

Ildo horretan, bat egiten dugu bihar Bilboko kaleetan Euskal Errepublikaren, demokraziaren eta justizia sozialaren alde, eta faxismoaren eta demofobiaren aurka, burutu zen manifestazioarekin.

POSTONTZIA

Sinatutako gutunak argitaratzeko posta elektronikoak: andoain@aiurri.eus | urnieta@aiurri.eus

AIURRI
BETERRI-BURUNTZAKO ASTEKARIA



www.aiurri.eus

Aiurri eskuragarri:
Ebeez ebeke harpidetza-sistema. Andoainen urte osoko harpidetza-saria 37 eurokoa da. Urnietan, 31 euro. Ale batzuk eskuragarri kiosko eta merkatalguneetan.

Egoitza Orokorra:
Arantzibia plaza, 4/5-behea. 20140, Andoain
Tel.: 943 300 732
Faxa: 943 300 731
andoain@aiurri.eus
www.aiurri.eus

Zuzendaria: Jon Ander Ubeda.
Erredaktoreak: Xabier Lasa, Olatz Lasa, Andoni Urbistondo.
Maketatzailea: Maddi Trutxuelo.
Kudeaketa, harpidetza: Garbiñe Ugartemendia. idazkaritza@aiurri.eus
Publizitatea: Fer Irazu. publicitate@aiurri.eus
Banatzaileak: Mikel Arregi (Andoain), Isabel Salaberria (Urnietan).
Diseinua: Goiena Komunikazio Taldea
Zorion agurrak, merkatu txikia: diseinua@aiurri.eus | www.aiurri.eus
Whatsapp: 619 163 537
Lege Gordailua: SS-1078/04.
ISSN: 1698-4870.
Tirada: 4.000 ale.
Inprimategia: Zeroa Multimedia.

EKOIZLEA:



ALJATUAK:



INSTRUK

TOKIKOM

BI UDALERRIEN BABESAREKIN ARGITARATZEN DA:



ANDOAINGO UDALA



URNIETA UDALA

DIRUZ LAGUNDUTAKO ARGITALPENAK:



ZIURTAGIA:



BABESLEAK:

Aiurriko harpidedunak ezinbestekoak dira.

AIURRIK ez du bere gain hartzen aldizkari honetako orrialdeetan kolaboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.

PROTAGONISTA

"Ardurak eta konpromisoak jarraitzera animatu nau"

MIKEL PAGOLA URNIETAKO EAJ-PNV ALDERDIKO ALKATETZARAKO HAUTAGAIA

Jon Ander Ubeda URNIETA
2015ean bigarren agintaldiari baiezkoa ematea kosta egin zitzaizula antzeman nizun. 2019ra begira badintza hobeak ikusten dituzu? Edo aldartea hobe da?

Nekatuago nago, baina argi dago 2015ean aurkeztu ginenetik hainbat proiektu ezin izan ditugula bukatu. Arduraz eta konpromisoaz, egitasmo horiek hurrengo agintaldian burutu nahi ditugu. Horrek jarraitzera animatzen nau.

Komunikazioan irudiak garrantzia du, eta azken bi urteetan bereziki Udal komunikazio gehienetan Seguradoreen alboan agertu zara. Batek baino gehiagok pentsatzen genuen bera zela alkatetzarako zure alternatiba.

Jorge Segurado oso ondo ezagutzen dut eta hautagai ona izan daiteke. Denbora beharko du udal dinamika erabat menderatzeko, eta espero dut datozen urteetan gurekin udalgintzan jarraitzea. Herritar modura, hautagai ona eta egokia dela deritzot.



Mikel Pagola alkatetzarako proposatu du EAJ-PNVk, azaroko barne prozesuan. AIURRI

Errealzale amorratua zara, baina adi Athleticceko Urrutia lehendakariak agurrean esan zuenari: "Lau urteko agintaldia ondo dago, hamabi urte gehiegi da, eta zortzi egon beharra dago". Zer erantzun zenuke?

Arrazoirik ez zaio falta. Hamabi urte egotean arrisku hori egon daiteke, eta jendearengana iristeko zerbait berria aurkeztea komeni izaten da. Udalgintzaren egungo egoeran, arduraz

jokatzea erabaki dut. Alderdikideei eskertza adierazi nahi diet, bide batez, nigan konfiantza osoa jarri dutelako. **Zer da EAJ-PNVk urnietarrei eskaintzen jarraitu nahi diena?** Konpromisoa. Etorkizuneko Urnieta diseinatzeke legegintzaldi honetan hartu diren erabaki garrantzitsuenak epe luzerakoak izan dira. Erabaki asko hartu dira, eta beste asko hartzeko daude: inbertsio estrategikoak, kiroldegiko lanei ekitea, hirigintza garapena, gizarte mailako neurriak, Babiloniko etxebizitzekin batera Egapeko DBHko eraikina garatzea, 3. eta 4. adineko behar berriei erantzutea... **Gehiago osoan agindu duzue, egitasmo handiak bidean jarrai dituzue eta ez da zuenganako aurkakotasun handirik ikusten kalean... 2019ko hauteskundeetan besteek bezala lehiatu beharko duzue. Abstentzioa izan daiteke zuen aurkaririk handiena?** Aurreko deialdietan, bereziki 2015ean, herritarren motibazioa piztea lortu genuen. 2019an ere ilusioa mantentzen eta, abian dauden egitasmoen gain, proiektu berriak eskaintzen ahalegindu behar dugu. Abstentzioa saihesteko herrikideen motibazioa landu beharko dugu.

HAU ERE BADUGU!

Wifia herrigune osora zabaltzeko laguntza

EITBk aurreratu zuen albisteak, eta segidan medio horren albisteak zabaltzen dituen Andoain izeneko Facebook orrialdean agitaratu zen. Udalean oraindik ez dute konfirmazio ofizialik jaso, baina albistearen xedea hauxe da: "WiFi4EU programaren barnean, Euskal Herriko 19 herrik eta hirik Europar Batasunaren 15.000na euroko diru-laguntza jasoko dute, wifi-konexioa" instalatzeko. Parke, plaza eta eraikin publikoetan ipintzeko laguntza da. Gipuzkoako Arrasate, Andoain, Zumaia eta Ezkio-Itsaso herriek jasoko dute diru-laguntza hori. Andoaindarras y punto Facebook orrialdeko partaide aktiboena den Julen Lorenzok ekimenaren sorburua gogora ekarri zuen: "Talde honetako Esther Imazek proposatu zuen ideia, eta AndoainApp bidez eskaera egin zitzaion Andoaingo Udalari, Europako laguntza horietara aurkeztu zedin. Aztertuko zutela esan zuten. Hemen emaitza". Pozarren agertu dira orrialde horretako hainbat erabiltzaile.

Kirol taldeen martxa Instagram sarean



Andoaingo txirrindulari eskola eta Euskalduna futbol taldea lan txukuna egiten ari dira Instagram sarean, denboraldiaren jarraipen zehatza eginez. Txirrindulariak prestaketa lanetan murgilduta daude, eta futbolariak aldiz, denboraldian bete-betean murgilduta. Zelaia alde batera utzi eta aurreko asteburuan jubenil mailako futbolariak mendialdera jo zuten. Horkoa da argazkia.

DATUA

Gardentasuna

Gobernuen irekitasuna neurtzeko plataforma da Dyntra.org. Estatu osoko erakundeek datuen bilketak eskaintzen ditu webgunean (Gobernuak, udalak, alderdi politikoak...). Udalen gardentasun maila neurtzeko, esaterako, Dyntra indizeak sei ataletan banatzen diren hainbat neurgailu erabiltzen ditu: udal antolaketak, parte-hartzea, ekonomia, kontratazioa, hirigintza eta datuen gardentasuna. Andoaingo Udal ranking horretan agertzen da, gardentasun maila on samarra eskainiz. Aldagai guztien inguruko datuak eskaintzen ez badiu ere, EAEko udalerrien artean Arrasate, Lasarte-Oria edo Tolosaren aurretik dago.

GORA ETA BEHERA



Musikazuzenean egitasmoa Durangoko Azokan

Durangoko Azokan Musikazuzenean egitasmoak postua ipini du, dozenaka talderen diskoak saltzeko. Koldo Otamendi andoaindarrak egitasmoaren aurpegi ezagunena da. Berak eta beste andoaindar batzuek autoekoizpenaren bidetik jo duten taldeei azokan egoteko aukera erraztu zieten.



Erreparazioa biktimen kasuan

Indarkeria matxista pairatzen duten emakumeen lekukotza bizietan, bistakoa da eraso salatzeke garaian aurkitzen duten bide malkartsua. Ezarritako protokoloetan hobekuntzak egin behar dira, erreparazioari dagokionez bereziki

Jon Ander Ubeda ANDOAIN

Laburbilduz, horixe izan zen jardunaldia abian jartzeko sorburua. Joan zen azaroaren 22an, Andoaingo Udalaren ekimenez, alor ezberdinetako adituek eta biktimek erreparazioa aztergai izan zuten Basteron. Hamabost egun igarota, hauxe da Sandra Barrenetxea Udal teknikariak eta Esti Mujika zinegotziak egiten duten balorazioa. Pozik daude jardunaldiarekin, oro har, erreparazioaren ikuspegi osatua lortzeko baliagarria izan zelako. **Erreparazioari eskainitako jardunaldia berritzailea izan zen. Aitzindari papera jokatu al du Andoaingo Udalak alor horretan?**

Esti Mujika. Emakumeenganako eraso edo jazarpena antzematen den unetik aurrera protokoloa martxan jartzen da, geroz eta herri gehiagotan. Azken urratsa falta zela nabaritzen genuen, eta hori erreparazioa da. Andoaingo Udalean indar berezia jarri nahi genuen azken urrats horretan. Bitarteko asko jarri behar izaten da, ez da soilik atentzio psikologikoa. Adituekin egin genuen azaroaren 22ko jardunaldia, ikasteko eta informazioa jasotzeko oso baliagarria izan da.

Ikuspegi teknikitik zein balio ematen diozu jardunaldiari?

Sandra Barrenetxea. Erreparazioan eztabaida asko zabalik daude, neurri zehatzetara lotuta daudenak. Horietako batzuk eztabaidatsuak izan daitezke, justizia berrezartzailea adibidez. Guztiak aipagai izan ziren eta orain guri dagokigu neurri zehatzak mahai gainean jartzea.

Erreparazioa bere osotasunean eskaintzeko oso urruti al daude erakundeak?

Esti Mujika. Une hauetan bai. Emakumeari, tratatu txarrak pairatzen



Barrenetxea eta Mujika Urigainen, jardunaldiaren kartelaren alboan. AIURRI

dituenetik, gaurkoz ez zaio erreparazioa bere osotasunean eskaintzen. Guk oraindik ez ditugu baliabide horiek guztiak eskura. Bereziki, ez direlako orain arte jasota egon. Udal mailan, etxebizitzak eskaintzen lehene-tarikoak izan ginen, baina erreparazioaren ikuspegitik oraindik orain udalerrri askotan ez da bere osotasunean zerbitzua eskaintzen.

Kontraste handiak ikusten dira erakundeetan. Batetik erreparazioan sakontzeko gogoia ikusten da erakundeetan, eta bestetik talka handia dago justizia mailarekin.

Sandra Barrenetxea. Herrietan biolentzia kasu errealei erantzuteko erakundeen arteko mahaia dago, eta bertatik, Osakidetzak, Ertzaintzak eta udal zerbitzu ezberdinek ezarritako protokoloa

Jardunaldi aberasgarria Basteron



Basteroko jardunaldiko irudia, joan zen azaroaren 22koa. KALAKA

Biktimak eta adituak Basteroko jardunaldian lekukotza zuzenak eskaini zituzten hainbat biktimek, parean zituzten adituen eta agintarien aurrean.

jarraitzen dute. Sektore arteko mahai horretan, balorazioa egiterako garaian, justizia mailako eremua gaizki baloratzen da.

Emakumeek, hasteko, egoera zaila topatzen dute. Gertatu zaiona salatu egin behar duela adierazten zaio, baina kasu askotan bigarren aldiz biktima sentitze-ko aukera asko dituzte. Epaitegietan euren lekukotzari ez zaio-lako sinesgarritasuna ematen, edota horrelako instituzio batean aritzeko ez zaielako nahikoa laguntza ematen...

Hori horrela izanik, erakunde ezberdinak lanean ari dira justizia eremuan aldaketak eman daitezen. Adibidez, udalerrri mailako sektore mahaian justizia txertatzeko proposamena egina dago. Andoaingo udalerrriari dagokionez, Tolosako epaitegiko ordezkari bat mahai horretan egotea ondo legoke.

Bestetik, emakumeari prestakuntza eman behar zaio epaitegien bide hori egiten duenerako. Horretarako ditugu jabekuntza eskola, eta baita Gizarte Zerbitzuak ere. Orain arte, erreparazioa protokoloaren azken pausatzat hartu izan da. Aurrerantzean, eraso jasan duen emakumeari atentzioa ikuspegi erreparatzaile batetik eskaintzeko baliabideak jar daitezke.

Jardunaldiak pasa eta aste gutxira zer da bereziki gogoan gorde duzuen?

Sandra Barrenetxea. Aberasgarria izan zen, bereziki ponentzia oso teknikoak zirenak emakumeen lekukotza biziarekin uztartu zire-

lako. Emakumeek bizi zituzten egoerak eta egoera horietan antzeman zituzten hutsuneak biktima direnen ahotik entzun genituen. Alboan izan zituzten hutsune horiek gainditzeko dagoeneko maila teknikoan lanean dabiltzan adituak. Oso garrantzitsua izan zen hori.

Esti Mujika. Gure artean usteak eta iritziak izaten ditugu justiziaren inguruan, eta jardunaldi horietan adituen bitartez baieztatu zen estatu mailako justizia patriarkala dela. Erreparazioari dagokionez, adierazi zen guztitik, arreta pertsonalizatua eskaintzearen beharra nabarmenduko nuke nik. Emakume bakoitzak bizi duen egoera asko aldatzen baita, kasu batetik bestera.

Sandrak adierazi bezala, ikuspegi erreparatzailea lehen unetik aplikatzearen beharra azpimarratu nahiko nuke nik ere. Askotan emakumea salatzeri bideratzen baitugu, prozesu hori eramateko prestatuta ez dagoen. Oso garrantzitsua da tresna ezberdinak emakume horien eskura uztea.

Emakumeak elkartzeko gune gehiago sortu behar ditugula, horixe izan zen atera nuen beste ondorioetakoak.

Sandra Barrenetxea. Erreparazioa protokoloan txertatzea berria da, eta Udalak horretan sakontzeko baliabideak ipini dituela azpimarratzea garrantzitsua da. Horrelako jardunaldia ezin da erakunde baten babesik gabe antolatatu. Andoaingo Udalak inplikazioa eta baliabideak eskaini ditu.



Trianako kideak, Amaia Gonzalez dantzaria, Marife Nogales mezzo-sopranoa eta Urkiko Sonia Antolinez. Atzean, abesbatzako eta Bandako kideak. AIURRI



Oiartzabal zuzendaria, Nogales abeslaria eta Gil antolatzailea, emanaldiaren amaieran. AIURRI

Elkartasunezko doinuak

Igandean minbizia duten hurrekin lan egiten duen Aspanogi elkartearen aldeko kontzertua antolatu zen Basteron. Elkarteko lehendakari Bittor Andonegi hunkituta agertu zen kontzertuaren amaieran egin zuen eskertza adierazpenean

Xabier Lasa ANDOAIN
“Kontzertua maitasunez egingo zenutela agindu zeniguten, eta benetan harrigarria izan da eskaini duzuen ikuskizuna”. Ho-

riexek izan ziren Andonegiren adierazpenak, emanaldiaren amaieran. Basterora jendetza hurbildu zen, eta ia bete egin zela esan daiteke. Aspanogiko

ordezkariak eskertza adierazteko aukera baliatu zuen, bereziki jaialdia antolatzen buru-belarri jardun duten Triana elkarteko eta Gora Kaletxikiko kideei. Joxe

Ramon Berrondok aurkeztuta, hainbat musikari joan ziren igotzen oholtzara: Gora Kaletxiki Banda, Soinuak musika eskola, Alberto Agirre abesbatza, Olagain txistularien elkarte, Urki eta Triana dantza taldeak. Gora Kale Txiki Bandak eraman zuen musikaren haria kontzertuan zehar, Joxe Mari Oiartzabalen zuzendaritzapean. Marife Nogales mezzo-soprano andoaindarrak ere laupabost abesti interpretatu zituen. Emozio handiko musika emanaldia izan zen.

Kontzertuari hasiera emateko, agurra modu oso berezian eskaini zuten Sonia Antolinez euskal dantzariak eta Amaia Gonzalez Andaluziako dantzariak. Hortik aurrera, kantutegi ezagunari heldu zioten: *Tribute to Louis Armstrong, Maitea, non zira?, Lau teilatu, Gospel train...* Andoaingo ereserkiak kontzertuari amaiera eman behar bazioen ere, ikuslegoaren eskariz, jaialdiko parte-hartzaile guztiek elkarrekin *Xalbadorren heriotzean* abestu zuten.

Udal egutegiko argazkiak

- Urtarrila: **Manuel Casellas.** *Lo que la nieve esconde.*
- Otsaila: **J. Angel Amutxastegi.** *El tunel del tiempo.*
- Martxoa: **Aitor Alkain.** *Ubare erreka.*
- Apirila: **Natalia Artetxe.** *Zubia.*
- Maiatza: **Xabier Huitzi.** *Andoain.*
- Ekaina: **Itziar Gutierrez.** *Aiton-amonen etxetik.*
- Uztaila: **Hilario Rodeiros.** *Arcos.*
- Abuztua: **Xabier Alkorta.** *Piztia.*
- Iraila: **Juanan Lazkano.** *Bizikletaren jokia.*
- Urria: **Julian Guerrero.** *Oria ibaia.*
- Azaroa: **Roberto Trutxuelo.** *Santa Krutz Eliza.*
- Abendua: **Jon Aizpurua.** *Mara-mara.*





Euria haur ikuskizunaren irudia, igande honetan Andoaingo Basteron, arratsaldeko 17:00tan eskainiko dutena. MARKELIÑE

Eguberri giroko asteburua, kultur ekitaldiz beterikoa

Andoainen eta Urnietan antzerkia, dantza eta musika proposamenak nagusituko dira asteburu honetan. Tradizioz beteriko Eguberrietako ekitaldiak iristear direnean, bi herriak kulturaz blaituko dira egun hauetan. Aukera zabala da

Erredakzioa ANDOAIN

Agenda hitzorduz beterik dago, urtea amaitzen ari denean. Las-ter iritsiko dira Olentzero eta Mari Domingi, eta harekin batera tradizio bilakatu diren kantu errondak eta musika kalejirak. Pena galanta hartuko dute aurten Urnietako euskaltzaleek, Inñistorrak antolatu ohi duen Santomas ospakizuna ez baita egingo. Lastima! Herriko baserritarren sagardoa jai giroan

dastatzeko aukera aparta zelako. Hura ere euskal tradizioari lotutako festa zen. Eguberriak iritsi aurretik, ordea, Andoaingo eta Urnietako kultur programatzaileek egitarau kosmopolita antolatu dutela esan daiteke. Federico Garcia Lorcaren literatur mundua, Afrika aldeko dantza tribalak, haurrei eta helduei zuzenduriko antzerki emanaldiak..., etxean geratzeko aitzakia gutxi dago egunotan.

Musika ikasleen emanaldiak

Ikasturtearen lehen txanpa igarota, bi herrietako ikasleen emanaldi ugari programatu dituzte datozen egunetarako.

AFRIKAKO DANTZA TRIBALAK, ANTZERKI SAIOAK..., ETXEAN GERATZEKO AITZAKIA GUTXI DAGO



Marsel magoa zuzenean arituko da. MARSEL

Pausokaren aldeko jaialdia

Abenduak 14, ostirala.

19:00. Hernani. Biteri.

Salsa, tangoa, bachata, milonga, funkya, sevillanak, euskal dantzak... Dantza eta magia jaialdia, elkartasun kutsukoa.

7ak bat gaiztoetan gaiztoena

Abenduak 14, ostirala.

21:30. Andoain. Bastero.

Komedia, satira, sarkasmoa. Atx teatroa konpainiak horrela aurkezten du bere ikuskizuna: "2018an 200 urte bete dituen Victor Frankenstein inspirazio moduan hartuta, gure kulturako eta beste kulturetako zazpi bekatu kapitalak hartuz gizaki berri bat sortuko dugu, basatia, cupidagabea....



7ak ikuskizunaren pasartea. ATX



Euria ikuskizunaren pasartea. MARKELIÑE

Euria

Abenduak 16, igandea.

17:00. Andoain. Bastero.

Markeliñe konpainiaren ikuskizuna, familia guztiarentzat. Akrobazia eta magia saioa, hitzik erabili gabeko antzerki saioan.

Lorca

Abenduak 16, igandea. 19:00. Urnieta. Sarobe.
Garcia Lorcak hurbilekoei idatzitako gutunetan oinarrituriko narrazioa da asteburu honetan Urnietako Saroben eskainiko duten “Lorca, la correspondencia personal” antzezlan. Gema Matarranz eta Alejandro Vera aktoreak igoko dira taula gainera, Juan Carlos Rubioren zuzendaritzapean aritzeko. Bi aktoreek gorpuzten dute poeta, batzuetan gizon eta besteetan emakumezko. Udalak zozketa antolatatu du urnietarren artean, eta parte hartu nahi duenak abenduaren 13a baino lehen izena eman behar du. Lau sarrera bikoitz daude jokoan.



Antzezlanaren gaztelaniaz eskainiko dute. LORCA

Af NDanza

Abenduak 18, asteartea. 20:00. Andoain. Bastero.
Dantzari gazteek osatzen dute AF NDanza, tribuetako musikari eta dantzarien artean hazi direnak Ugandako “Música para salvar vidas” giza proiektuaren parte dira. Saioan zehar, argiz eta itzalez beteriko errealitatea islatuko dute. Lema zehatza dute: "Derrigorrezkoa da borrokatzea, guraso afrikarrak dituen Espainian bizi den neskatila, emakumeen mutilazioa egiteko jaioterrira eraman ez dezaten". Ikuskizunak bi zati ditu: lehenengoan Afrikako irudiak eskainiko dituzte, eta bigarrenean antzezlan txikia, musika oinarri duena, emakumeen mutilazioa gaitzesten duena.



Dantza ikuskizun tribala eskainiko dute, bizia eta alaitasun handikoa. ALBERKA

Kale animazioa

Abenduak 15, larunbata. 11:30. Andoain. Kalejira.
Abenduak aurrera egin ahala, Eguberrietako giroa herri guztietara zabalduz doa. Andoainen Gora Kaletxiki txaranga kalez kalez arituko da. Eguberrietako erosketak egiteko eguna izango da, askorentzat. Arratsaldean, berriz, La Salle antzokian Izartxo aisialdi taldeak Gabonetako festa antolatatu du.



Gora Kaletxiki txaranga. AIURRI



Lourdes Iriondo Udal musika eskolako ikasleak. AIURRI

Musika ikasleen emanaldiak

Abenduak 20-23
Emanaldi ezberdinak Andoainen:
Abenduak 20, osteguna:
18:00 Andoaingo Udal musika eskolako tailerretako ikasleen Gabonetako emanaldia Basteron.
Abenduak 22, larunbata:
12:00 Soinuak musika eskolako ikasleen emanaldia Basteron.
18:00 Bertso poteoa eta trikiti doinuak kalez kale.
Abenduak 23, igandea:
12:00 Gipuzkoako haur abesbatzen Gabonetako kontzertua Basteron.
Abenduak 18-20
Lourdes Iriondo musika eskolako ikasleen emanaldiak Urnietan:
Abenduak 17, astelehena:
18:30 Instrumentu ezberdinekin osaturiko emanaldia, eta musika hizkuntza tailerreko ikasleen emanaldia.
Abenduak 18, asteartea:
18:30 Pianoa, trikitixa-pandero eta biolina ikasten ari direnen saioa.
Abenduak 19, asteazkena:
18:30 Musika tailerreko ikasleen emanaldia.
18:30 Instrumentu ezberdinekin osaturiko emanaldia.
Abenduak 20, osteguna:
18:30 Klarinetea, saxofoia eta pianoa ikasten ari direnen saioa.

Irunberriren urteurrena

Abenduak 13-16
Ospakizun sorta zabala
Hogei urte betetzen dira aurten Irunberri elkarteak ireki zutenetik.
Abenduak 13, osteguna:
19:00 Pintxo-pote berezia.
3nber garagardoaren aurkezpena eta kata.
Abenduak 14, ostirala:
22:00 EH-ko Mus Txapelketa.
23:00 DJ Mai.
Abenduak 15, larunbata:
16:00 Pala txapelketa mixto azkarra.
19:00 Kantujira.
21:00 Afaia Irunberri elkartearen Txartelak Irunberri tabernan salgai.
Abenduak 16, igandea:
17:00 Umeentzat txokolatada eta jokoak.



Aurtengo afitxa. IRUNBERRI

Urnietara iritsiko dira astebeteko epean

Ilusioz gainezka daude honezkero Urnietako haur eta gaztetxoak, eta baita hainbat eta hainbat heldu ere. Olentzero eta Mari Domingi abenduaren 23an kalejiran ibiliko dira herrigunean, Santa Leokadia parean haurren gutunak jaso aurretik

Egape ikastola

URNIETA

Olentzero euskal mitologiako beste pertsonaia bat zen, Mari, Mateo-txistu, Tartalo eta abarren tankeran. Ikastolek zabaldu zuten Euskal Herrian zehar.

Ohitura lokala zena, aurreko mendeko azken hamarkadatan zabaldu zen Euskal Herri osora, ikastolen bultzadari esker batik bat. Neguko egun berezi horietan euskal kulturaren pertsonaia bezala marraztu zuten irakasleek eta haren omenezko kantak abesten ziren etxeko eskean.

Olentzero euskal kulturaren sinbolo ere bilakatu zen eta hainbat herritan burutzen ziren Errege desfileen konpetentzia bilakatu zen.

Olentzero, Egape ikastolan, lehenengoz 1969an atera zen eta geroztik urtero-urtero jarraitu dugu ohitura horrekin. Hasiera horretan, irakasle eta ikasle koxkorrekin batera, Xabier Lete joaten zen baserriz-baserri urte haietan ikastolako Juntakidea baitzen.

Geroztik urtero ikastolako haurrak ateratzen dira abenduaren 24an herritik eta baserrietatik kantari.

2012an ikastolako Egape dantza taldeak beste ukitu bat eman nahi izan zion Olentzeroren



Olentzero Egape ikastolan, artxiboko irudian. EGAPE

etorrerari, Maridomingi kidea kalejiran txertatuz.

Herriko beste elkarteekin eta Udalaren laguntzarekin "Olentzero badator" jarduera bultzatu zuen, Txanbolin txistulari banda, udal musika eskolako trikitilariak, herriko antzerki tailerreko aktoreak eta Egape dantza taldeko helduen taldeak lagunduta.

Abenduaren 23an Urnietara datoz Olentzero eta Mari Domingi

Ekitaldia Olentzerori eta Mari Domingiri merezi duten arreta

emateko asmoarekin sortu zen. Ordura arte, Gabonetako jaietan, errege zaldiketari eskaintzen zitzaion arreta eta dedikazio gehiena, baina ospakizun honek hasieratik indarra hartu zuen eta dagoeneko, urtero, abenduaren 23an Olentzero eta Mari Domingi ateratzen dira Urnietako kaleetatik zehar.

Kalejira amaituta, herriko txikien eskutitzak jasoko dituzte San Juan plazako Santa Leokadia basilizan.

Laster, egun gutxi barru, Urnietan bertan izango ditugu.



Abenduaren 24ko artxiboko irudia. AIURRI

Gabon kantari irteteko bi entsegu deitu dituzte

Datorren asteke asteartean eta ostegunean entsegu bana egingo dute Lekaion, iluntzeko 20:00tan hasita

Erredakzioa URNIETA

Abenduaren 24an kantari arituko den helduen taldea arratsaldeko 17:00tan abiatuko da San Juan plazatik. Hitzordu hori prestatzeko bi entsegu egingo dituzte, datozen egunetan. Hurrenez hurren, abenduaren 18an eta 20an. Iluntzeko 20:00tan elkartuko dira Lekaio kultur etxean.

Abenduaren 24an, goizean zehar, herriko ikastetxeetako taldeak kalez kale kantuan ibiliko dira.

Gabonetako lehiaketak

Datorren abenduaren 19an Gabonetako jaiotzen sari banaketa ekitaldia egingo dute Saroben, iluntzeko 19:30ean hasita.



Gabonetako sari banaketa ekitaldia hilaren 19an da. AIURRI

Ekitaldi bikoitza iragarri dute Urnietako eta Andoaingo Sarek

Urtarrilaren 1ean Adarran taldeko argazkia ateratzeko deialdia, eta hilaren 12an Bilbora joateko deialdia

Erredakzioa URNIETA

Urnietako eta Andoaingo Sarek "Orain presoak" lemapean bi hitzorduren berri eman nahi dute. Lehenengoa urtarrilaren 1ean izango da, urteberri egunarekin bat eginez. Adarrara

igozte tradizioa da, eta aurten goizeko 11:00tan taldeko argazkia ateratzeko deia egin dute.

Manifestazioa Bilbon

Urtarrilaren 12an euskal presoek giza eskubideen alde Bilbon

egingo den manifestaziora joateko autobusak antolatu dituzte Urnietako eta Andoaingo Sarek. 17:00etan abiatuko da La Casillatik. Bertaratu nahi duenak aurrez izena eman behar du ondoko lekuetan: Andoainen Irunberri elkartean eta Xaxin. Urnietan Kantoin eta Bikain okindegian. Autobusaren irteera ordua eta lekua, urtarrilaren 9ko Aiurrin jakinaraziko da.

Egun horretan bertan, lelo berarekin, beste manifestazio bat antolatu da Baionan.



Sareren deialdia, artxiboko irudian. URIOLA



Botilaratutakoa urte osoan dastatzeko aukera dagoen arren, kupelen xarma berezia da. Laster zabalduko dituzte sagardotegiak. AIURRI

Aurtengo sagardo uzta berezia izan da Gipuzkoan

Gipuzkoako Sagardogileen Elkarteko sagardotegiek zortzi milioi litro egin dituzte aurtur. Aipatzekoa izan da bertako sagarraren garrantzia. Usaimenari dagokionean intentsitate eta gorputz handikoa, 6,5 °-ko alkohol graduazio inguruan dabil. Tanino handikoa da

Erredakzioa ANDOAIN

“2018ko uztako sagardoa prest dago sagardotegietan, ate joka dugun txotx garaian dastatzeko”. Denboraldi berrian sagardotegira hurbiltzeko gonbitea luzatuta dago. Kopuruan, 11 milioi litrotik Gipuzkoan 8 ekoiztu dira. Xehetasunei dagokionez, haxe da sagardozaleak topatuko duena: “Iazko uzta opa-roaren ondoren, sagar urte lasaia izan da aurtengoa. Sagarrondoek, espero bezala, sagar gutxiago eskaini badigute ere,

kalitate oso handikoa izan da etorritakoa. Aurtur sagar alea txikiagoa izan da eta likido gutxiagoa. Muztioa gutxiago atera bada ere, kontzentratuagoa izan da eta azukre gehiagoa. Sagar lanek iaz baino gutxiago iraun dute aurtengoa, beranduko sagarrak lehenago etorri direlako. Gorputz, izaera eta tanino handiko sagardoa izango dugu aurtengoa”.

Beraz, gorputz eta izaera handiko sagardoa da: “Irakinaldiei dagokienez, urriko tenperatu-

ra egokiek eraginda, azkar irakin dute sagardoek eta usain ederra dute kasurik gehienetan. Horrek esan nahi du txotxean bukatutako eta ondo borobildutako sagardo asko izango dela aurtur”.

"MUZTIOA GUTXIAGO ATERA BADA ERE, KONTZENTRATUAGOA IZAN DA ETA AZUKRE GEHIAGOKOA"



Sagardotegien etorkizuna

EUSKAL HERRIKO SAGARDOGILEEN ELKARTEA

Badira urte batzuk sektorea sagardoaren kultura sustatu eta sektore turistikoan lanean jarri dela. Helburua sagardotegia, txotx esperientzia eta baserria ezagutzera ematea da, eta horrela gure produktua, gure jatorria, gure ohiturak, historia eta euskal kultura baloreen jartzea. Izan ere, sagardoa izan da mendeetan zehar Euskal Herriko produktu bakarra eta dolare-baserriak, milaka litro egiteko sortutako enpresa txikiak ziren, bertakoen kontsumorako eta baita euskal arrantzaleek baleontzietan kanpora eramateko ere.

Euskal jatorrirra itzulua

Sagardoa Route egitasmoan Euskal Herriko 7 lurraldeetako 60 sagardotegi biltzen dira. Sagardoaren kulturaren inguruko eragile eta baliabideekin batera aurrera eramandako proiektua da. Iaz jarri zuten lehen harria, eta aurtur berrikuntza gehiagorekin sektorearen profesionalizazioan beste urrats bat eman dute. Egitasmoan murgilduta daude Urnietako Altuna, Elutxeta, Eula, Oianume eta Setien sagardotegiak.

Sagardo Apurua

Donostiako Boulevardean abenduaren 6tik 9ra antolatu duten ekimenaren izena da. Garai bateko baserri sagardotegi baten berreraikuntza da. Baserri horri bizitza eman diote hainbat eta hainbat ekintzaren bidez: herri kirolak, cocktail lehiaketak, dastatzeak, maridajeak, erromeriak eta abar.

Sagardoa.eus, erreserba automatikoa

Sagardogintza mundua ostalaritzako erreserba sistema berrietara egokitzeko egitasmoa da. Sektoreak aurrerapauso handia eman du erreserba motor automatiko honekin, erreserba bide berriak garatuz eta pixkanaka egungo eskariari erantzuna emanez.

Sagardotegi batetik bestera gauzak asko aldatzen badira ere, orokorrean hauexek nabarmen-tzen diren xehetasunak:

- Aroma aldetik intentsitate handikoa.
- Gorputz eta izaera handikoa.
- Txinparta finekoa.

Eskualdeko sagardotegiak urtarrean zabalik

Txotx garaia urtarrean hasi eta maiatzera bitarte luzatuko da, nahiz eta joera berria txertatzen ari den. Geroztik eta gehiago dira urte osoan zabalik daudenak. Eta urte osoa ez bada, ohikoa den egutegia zabaltzen ari direnak.

Oraindik orain, Beterri-Buruntzan urtarrean abiatzen da denboraldi berria. Astigarragan irekiera ofiziala urtarrearen 16rako iragarrita dago, eta Hernanin 18rako. Urnieta eta Andoain sagardoaren lurraldearen epizentroan dauden arren, bi herriotan ez da gaurkozt irekiera ekitaldi bateratua antolatzea lortu. Dena den, Andoain eta Urnietan ere txotx garaiari ur-

tarrilaren lehen hamabostaldian ekingo diote.

Industria sektore baten parekoa da txotx garaia, sagardogileen elkarteak datu bidez aitor-tzen duen bezala: “Txotx garaia oihartzun eta arrakasta handiko ohitura da Euskal Herriko sagardotegietan, eta jendea de-seatzen egoten da noiz hasiko den beren erreserbak egin eta Txotx garaiaz gozatzeko. Urtean 800.000 bisitari inguru izaten dituzte Euskal Herriko sagardotegiek, hasi urtarrean eta maiatzera arte. Inguruko ekonomian eragin zuzena du”.

Dibertsifikatzen ari da produktua

Edariaz harago, sagardoa merkaturatzeko bide berriak lantzen ari dira: Muztio pasteurizatua, sagardo apardunak, krintza ardoen pare ondutako sagardoa, izotzezko sagardoa eta oraindik ikertzen eta lantzen ari diren merkaturatu gabeko hainbat produktu. Produktu gama horren erakusleihoa www.sagardoa.eus webgunean topa daiteke.

Euskaraldia gogoan, bideo sorta zabala



Andoain | Musika eta bakarriketa saioa Basteron



Urnieta | Euskararen nazioarteko eguna Urnietan



Andoain | Euskaraldiaren koreografia Kale Nagusian



Andoain | Euskaraldia batzordearen adierazpena Bastero plazan



Urnieta | Euskaraldiaren hasierako ekitaldia San Juan plazan



Urnieta | Egape dantza taldearen koreografia



Urnieta | Hamaikakoaren aurkezpen ekitaldia



Andoain | Hamaikakoaren aurkezpen ekitaldia



AIURRI.EUS
ALBISTEAK, ARGAZKIAK, BIDEOAK, AGENDA



HITZORDUAK

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTEARTEKO EGUERDIA BAINO LEHEN. Tel.: 943 300 732 / andoain@aiurri.eus

OSTEGUNA 13

ANDOAIN Bazkidetza kanpaina

2019rako Bastero Kulturguneko bazkidetza kanpaina martxan dago. Urtean 40 euroko kuota ordainduta, hainbat abantaila: Doako 2 sarrera ikuskiunetarako, beste 2 zinerako, %25eko deskontua emanaldietan... **Xehetasunak: Bastero.eus.**

ANDOAIN Ikuszirkus sarrerak

Ikuszirkus jaialdia abenduaren 26tik 30era izango da. Ziklo osoa ikusteko bonoa erosteko azken eguna abenduaren 13a izango da. Sarrera solteak abenduaren 17tik aurrera salgai izango dira.

Ohiko ordutegia, Bastero.

OSTIRALA 14

ANDOAIN Deialdia

San Tomas egunean Juanita Alkain plazan postua ipintzeko izena emateko azken eguna.

Bastero.

URNIETA Ipuin kontaketa

Marisa Taberneroren eskutik.

17:30, Lekaio.

HERNANI Kontzertu solidarioa

Pausoka elkartearen alde, dantza estilo ezberdinen erakustaldia.

19:00, Biteri.

URNIETA Parte-hartze prozesua

EH Bilduren eskutik, proposamenak jasotzeko mahaia ipiniko dute Zaldundegi ondoan.

Arratsaldez.

ANDOAIN Antzerkia

Atx Teatroaren eskutik, '7ak bat' antzezlan.

21:30, Bastero.

LARUNBATA 15

ANDOAIN Kale animazioa

Eguberrien atariko ospakizuna, Gora Kaletxikiren eskutik.

11:30-13:30, kalez kale.

Gabonetako festa Izartxo aisialdi taldearen eskutik.

17:00ean hasita, La Salle.



2008-2013 urte bitartean jaiotako haurrei zuzenduriko eskaintza da. UDALA

URNIETA Eguberrietako tailerrak haur eta gaztetxoentzat

Parte-hartzaileen kopurua mugatua da, eta izena eman duten hurrenkeraren arabera onartuko dituzte. Hauxe da eskaintza: Abenduaren 26an magia Lekaion, 27an sukaldaritza Gaztelekuan (2 txanda), 28an zientzia esperimentuak Lekaion eta 31n Eureka museora bisitaldia.

Izena emateko azken eguna: Abenduak 17. Bertan, Lekaio, Urnieta.eus

IGANDEA 16

URNIETA Txapelketa

Ehiza xeheta txapelketa, Santa Kruz elkartearen eskutik.

09:00-13:30, Adarra mendia.

ANDOAIN Haur antzerkia

Markeliñe antzerki taldearen eskutik, "Euria" ikuskizuna. Gorputz adierazpeneko antzerkia.

17:00, Bastero.

URNIETA Antzerkia

"Lorca, la correspondencia personal" antzezlan.

19:00, Sarobe. 8 euro. Gaztelania.

ASTELEHENA 17

URNIETA Kontzertua

Lourdes Iriondo musika eskola.

18:30, Sarobe.

ASTEARTEA 18

URNIETA Kontzertua

Lourdes Iriondo musika eskola: Pianoa, trikitixa-panderoa eta biolina.

18:30, Sarobe.

ASTEAZKENA 19

URNIETA Kontzertua

Lourdes Iriondo musika eskola: 17:15etan musika tailerra.

18:30, instrumentu guztiak. Sarobe.

OSTEGUNA 20

URNIETA Eguberriak

Argien piztuera, Magalerekin.

18:00, Etxeberri plaza.

URNIETA Kontzertua

Lourdes Iriondo musika eskola: Klarineta, saxofoia eta pianoa.

18:30, Sarobe.

OSTIRALA 21

URNIETA San Tomas eguna

Idiazabal kalean, Egaperen eskutik.

Goizean zehar.

LARUNBATA 22

URNIETA Txapelketa

Mus txapelketa azkarra.

16:00, Santa Krutz elkarte.

ZINEMA

ANDOAIN**BASTERO****Durante la tormenta**


Larunbata, 15: 19:30; 22:00.
Igandea, 16: 19:30.
Astlehena, 17: 19:30; 22:00.

Ralph rompe Internet

Lar, 22: 17:00.
Ig, 23: 17:00 (3D).

Los crímenes de Grindelwald

Larunbata, 22: 19:30; 22:00.
Igandea, 23: 19:30.
Asteart, 25: 19:30.

**URNIETA****LEKAI****Un franco, 14 pesetas**

Osteguna, 13: 19:00.
Inmigrasine zikloaren baitan, Espainiako filma.

SINOPSIK

**Un franco, 14 pesetas**

Zuz.: Carlos Iglesias. **Herr.:** Espainia (2006). **Iraupena:** 105 minutu. **Hizkuntza:** Gaztelania.

Suitzara bizimodu hobearen bila

Espainia 1960. Martin Ianik gabe geratu da, eta ondorioz Suitzara joan beharra du bere

emaztearekin eta 5 urteko semearekin bizimodu hobearen bila.

Durante la tormenta

Zuz.: Oriol Paulo. **Herr.:** Espainia (2018). **Aktoreak:** Adriana Ugarte, Chino Darín, Nora Navas, Ruth Llopis... **Iraupena:** 128 min.

Ekaitzaren ondorioz bi errealtate

Bi garaien arteko interferentzia baten eraginez, ezkonduetako bizimodu lasaia daraman Vera izeneko amak, 25 urte atzerago beraian etxean bizitu zen gaztea salbatuko du.

Ekintza horrek, bata bestearen atzetik gertatuko diren erreazio desberdinak sortuko ditu, eta errealtatea bestelakoa izango da; alaba inoiz jaio ez den errealtatea.

Mus txapelketak bi herrietan


Andoainen abenduaren 14an

Euskal Herriko mus txapelketako kanporaketa Iruberrin jokatu da, gaueko 22:00tan hasita. Izen-ematea Iruberrin eta Xaxin. 20 euro ordaindu behar du bikote bakoitzak. Zazpi herrialdeetako finalak otsailaren 23an jokatu dira, eta finala martxoaren 16an Lizarran. Sari potoloak daude finalera iristen direnentzat.

Urnietan abenduaren 22an

Mus azkarra, Santa Krutz elkartearen eskutik. Izen-ematea, 15:30ean hasita: 1. 2 txapela, 2 arkume eta 2 txanpan botilla. 2. Arkumea eta 2 txanpan botilla. 3. 2 paletilla eta 2 txanpan botilla. 4. 2 baserriko oilasko eta 2 txanpan botilla.

ZORION AGURRAK



ANDOAIN
Irati
Irati Rosco
Muñozek 11 urte
bete zituen
abenduaren 11n.
Zorionak bihotza!
Etxekoak.



ANDOAIN
Uxue
Zorionak Uxue!
Muxu handi bat
denen partetik.



ANDOAIN
June eta Maddi
Gure June badoa koxkortzen eta abenduaren
6an bi urte bete zituen. Ederki ospatu dugu
Maddi ahizpatxoa eta etxekoekin. Zorionak
politta eta segi beti bezain irrifartsu eta alai.
Asko maite zaitugu! Etxekoak.

Urte askotarako!

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak. Oso erraza da, eta dohainik:

www.aiurri.eus
webgunea
"Zorion agurrak" atalean, fitxa osa
ezazu. Urtebetetze egunera bitarte,
ikusgai izango da webgunean.
Ez dadila tamaina handiko
argazkia izan. Tamaina
editatzerik ezean, erabili ezazu
posta elektronikoa.

diseinua@aiurri.eus
Mezua eta argazkia bidali Aiurriko
posta elektronikora, herria zehaztuz.
Arantzibia 4-5, behea. Andoain
Etor zaitetz bulegora: 943 300 732.
Whatsappez:
619 16 35 37
Mezua eta argazkia bidali Aiurriko
posta elektronikora, herria zehaztuz.

GUARDIAKO FARMAZIAK

ANDOAIN
Larunbata 15 eta igandea 16
ZATARAIN: Elizondo, 6.
943 590 802. Andoain.

URNIETA
Larunbata 15 eta igandea 16
TENA: Kale Nagusia, 16.
943 543 718. Astigarraga.
Gauetz, bi herrietan: Castilla.
943 552 941. Hernani.



AIURRI

Dantza ikastaroa Andoainen, helduentzat

Urtarrilaren 15ean ekingo diote ikastaroari, Urki dantza taldearen eskutik. Asteartero, oinarrizko maila dutenekin 19:00etan hasiko dira. Eta 20:00tan maila aurreratukoekin. Informazioa: 629 375 147. Datorren abenduaren 20ra arte eman daiteke izena.



ESKELAK JARTZEKO: 943 300 732
edo publizitatea@aiurri.eus

- Hileta egunean eskela Aiurri.eus-en + Oroigarria edo Esker ona Aiurri astekarian eta Aiurri.eus-en: 160 € + BEZ / Aiurriko harpidedunentzako 90 € + BEZ /
- Eskela mota guztiak Aiurri astekarian + Aiurri.eus-en: 140 € + BEZ / Aiurriko harpidedunentzako 90 € + BEZ

Eskelak Aiurriin: 90 euro



La 2.ª Guerra Carlista en Gipuzkoa (1872-1876)

Liburuaren azken aleak salgai
Andoainen: 30 €

Erosi Stop, Delgado eta Ernaitza liburudendetan.





Aiertza eta Rodriguez, aurkezpenean.

Andoain Laburrean ikus-entzunezkoen lehiaketa martxan

Erredakzioa ANDOAIN

Jada bideoak aurkez litezke Andoain Laburrean izeneko lehiaketara. 2015etik hona, Andoaingo Udala eta ESCIVI eskola lehiaketa elkarlanean antolatzen ari dira lehiaketa. Rodriguez zinegotziak antolatzearen zergatia azaldu zuen: "Bizi garen gizartea neurri handi batean ikus-entzunezkoena eta irudiarrena da. Euskarak sasoitsu agertu behar du eremu horietan ere".

16 urte edo gehiago duen, profesionala ez den eta Andoain bizi, ikasi edo lan egiten duen edozeinek parte har dezake lehiaketan, Ainhoa Aiertzak aurkezpene ekitaldian adierazi zuenez: "Andoaingo herriari edo Andoaingo pertsona edo gertakari ezagun bati buruzko erreferentziaren bat jasotzea hobetsiko da". Lehiakideek gustuko duten generoan aurkeztu ahal izango dute lana: filma, spota, bideo-klipa... Urtarrilaren 31 da lanak aurkezteko azken eguna.

Oinarriak andoaindarraeus-karaz.eus gunean eskura daude.



Santos Magaleko ikaslea da.

Kutxa saria Naiara Santos ikasleari

Erredakzioa URNIETA

Kutxa Fundazioak formakuntza dualari dagokion espediente akademikorik onenak saritu ditu. Tartean Magale ikastetxe-ko Naiara Santosena.

AZKENA



Asteleheneko bilkuran, Donostiara joateko deialdia luzatu zuten. AIURRI

Pentsio duinen alde, manifestazioa Donostian

Pentsiodunek eta erretiratuek Hego Euskal Herriko lau hiriburuetan manifestazioak deitu dituzte. Donostiakoa Alderdi Ederretik abiatuko da larunbat honetan, arratsaldeko 16:30ean. Andoaingo asteleheneko bilkuran, manifestaziora joateko deia luzatu zuten

Xabier Lasa ANDOAIN

Astelehen eguerdian jende asko bildu zen Goikoplazan, astero-ko pentsio duinen aldeko deialdiarekin bat eginez. Elkarretaratzean Xabier Etxeberria pentsiodunen aldeko ekintzaileak hitza hartu zuen. Adierazi zuenez, alargunen pentsioen inguruan administrazio ezberdinak "ankerkeriaz" jokatzeko ari dira. "Azken aldian, hedabideetan jakin dugunez, KGEE kooperazio eta garapen ekonomikorako erakundeak gomen-dioak egin dizkie hainbat herrialderi, tartean Estatu espainiarrari, pentsio kostuak gutxitu ditzaten. Betiko argudioa erabili dute: pentsioen kostua handia da eta segurtasun sozialeko sistema publikoak ezin dio aurre egin kostu horri. Estatuko diru kutxa hobetu dadin diru sarrerak bilatu edo fiskalitatea aztertu ordez, betiko neurriak aipatzen dituzte berriro ere pentsio baxuenak zi-

gortuz, alargunenak bereziki, eta ondorioz, emakumeak dira kaltetuenak".


Inkesta

Sita Pereira: "Senarra 53 urterekin hil zitzaidan, eta 1969az geroztik lanean jardun izan naiz. Orduz geroztik kotizatu dudanarekin eta alarguntzatik egokitzen zaidanarekin pentsio kaskarra geratu zait. "Pertsona batentzat ez da nahikoa bizimodu duin bat egiteko, eta ahal dudana bezala moldatzen naiz. Niregatik ez ezik, nire seme-alabekin eta geure atzetik datozen belaunaldi-ekin kezkatuta etortzen naiz Goikoplazako elkarretaratzera".
Bonifacio Muñoz: "Aurrejubilazioa hartu ahal izan dut, eta ingurura begira jarri gero daukadan pentsioarekin ezin naiz kexatu. Nolanahi ere, ezin gaitezke geurekioak izan. Denon eskubideak daude jokoan; guztion ongizatea aldarrikatu behar dugu, eta horretarako antolatzen dira aste-

lehenetako kale protestak. Gaur ohikatu ditugun leloetako batek erreakzionatu gabe begira-begira geratzen diren pertsonen zera ohartarazten die: guztioi egiten digutela lapurreta".


Gregori Bereziartua: "Astelehene-tako elkarretaratzera etortzeko ohitura hartuta daukat. Larun-bateko Donostiako manifesta-zioan ere parte hartuko dugu, senarrak eta biok. Geroz eta eskubide gehiago ari dira murrizten, eta hori ez da onargarria, denon artean galdutakoa berreskuratzea dagokigu. Senarrak lantokian egin izan du lan, eta bien bitartean, neu arduratu izan naiz etxeko lanekin. Oraindik ere hor gabilta bilobekin gora eta behera! Niri oraingoz ez dagokit pentsiorik, baina beharbada helduko zait eguna. Lotsagarria da alargunekin gertatzen dena; ahizpa daukat horrela, eta eskerrak semeek laguntzen dioten, gainerakoan jai edukiko luke".

Goikoplazan bildutako hiru iritzi




SITA PEREIRA

"Senarra 53 urterekin hil zitzaidan, eta 1969az geroztik lanean jardun izan naiz. Orduz geroztik kotizatu dudanarekin eta alarguntzatik egokitzen zaidanarekin, pentsio kaskarra geratu zait".



BONIFACIO MUÑOZ

"Daukadan pentsioarekin ezin naiz kexatu. Nolanahi ere, ezin gaitezke geurekioak izan. Denon eskubideak daude jokoan; guztion ongizatea aldarrikatu behar dugu astero-ko protestan".



GREGORI BEREZIARTUA

"Geroz eta eskubide gehiago ari dira murrizten, eta hori ez da onargarria, denon artean galdutakoa berreskuratzea dagokigu. Bereziiki lotsagarria da alargunekin egiten ari direna, familian bertan dut adibide erreala".